

## Okendoko lanak geratzeko eskatu dute Ezker Abertzaleko udal ordezkariak

### Eremuko urbanizazio proiektua aurkeztu gabe dagoela salatu dute

Asteartean Ezker Abertzaleak deituta, herritar talde bat batu zen Okendo plazan, bertan egiten ari diren lanei buruz hitz egiteko. Ezker Abertzaleko zinegotziek zenbait erabaki salatu zituzten, batetik zergatik itxi den hesiarekin Okendo plaza oraindik lanak hasi ez badira, eta zergatik itxi den festa bezperan ondorioz hainbat ekitaldi lekuz aldatuz, esaterako hurrengo asteburuko Artisauen Azoka. Okendoko lanen aurreproiektua onartua dago, "Udaletxea luzatuko da, eta Antonio Mercero-ren omenezko museoa, hiru etxebizitza, bi 9 pisukoak eta bat 16koa, eta 75 garaje inguru dira. Oinezkoentzat izango da Okendo eta plaza izango du."

Era berean, urbanizazio proiekturik gabe lanak hasi direla salatu zuten. "Egun herrian martxan dauden obra handi guztiak ez dute urbanizazio proiekturik, Goiegi, Zabaleta edo Okendokoek. Baimenik gabe inork ezin du obra bat hasi eta hemen lanean dihardute. Kuriosoena Okendokoa da. Orain, prestakuntza lanak ari dira egiten eta ziur gaude hemen ez direla obrak irailera arte hasiko" adierazi zuten.

Eta honetaz gain, "asteburu honetan, zabaldu eta mojetako arkupeak erakutsi behar dituztela jakin dugu. Beraz, jendea legez kanpoko lan batzuetan sartuko da" aipatu zuten.

### Lanak geratzeko eskaera

"Lehenengo astean, hau ikusita, obrak geratzeko eskaera egin genuen Udaletxeko erregistroan, urbanizazio proiektua aurkeztu arte behintzat," azaldu zuten.

Gainera, aste horretan egin zen Hirigintza batzordean Iñaki Mujikari luzatu zioten ixteko eskaera. "Aitortu dute legez kanpo ari direla, urbanizazio plangintzarik ez dagoela. Baina lanak ez direla geratuko ere esan zigun, eta Muriasek proiektua laster aurkeztuko duela ere bai," adierazi zuten. "Obra urgentea dela jartzen dute aitzaki, Udaletxean lekurik ez dagoela eta berritu behar dela" gaineratu zuten. "Inork ezin du obra bat baimenik gabe hasi eta zuek bai?" galdetu zioten zinegotziari. Arrazoia eman bai baina ez omen dute atzera egiteko asmorik.

"Legalitatea aipatzen du asko alkateak, baina kasu honetan ez da inon ageri," aipatu



zuten Ezker Abertzaleko ordezkariak. Bestalde zinegotziek salatu zuten, Udalak bi proiektu egin eta ordaindu ditu, lehenengoa ez zitziolako alkatesari gustatu. Gainera, Ezker Abertzalearen ustetan, "Zalantza daukagu Udal arkitektoek legez proiektua egiterik daukaten."

Hau guztiak salatu zuten zinegotziek eta ondoren herritarrek beren kezka eta galderak luzatu zituzten, esaterako proiektua aldatzerik dagoen galdetu zuten. Zaila, bileran aipatu zenez, Urchueguiak legealdi honetan bukatu nahi baitu egitasmoa, hain juxtu hurrengo Udal hauteskundearen aurretik. •



15-20 lagun elkartu ziren Okendoko proiektuari buruz jarduteko.

### GAIA /3

**Irailak 5 eta 6an Stock eta Saldoen II. Azoka jarriko dute Udalak eta Aterpea elkarteak**



**Jon Lasa:**  
"Gehiena maite dudana musika tresna gure ahotsa da" /4-5



**Zilarrezko eta brontzezko domina eskuratu ditu Tiatik, pisu eta disko jaurtiketan /6**



# iÑAKI TABERNA

**Goizeko Setatik aurrera irekita**

- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK

Iñigo de Loiola 4 behea • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365501 • iparruti@euskalnet.net



**Neure kabuz**



**Apaiz fusilatua**

Gure arteko gerrate zibila deituriko hartan (1936-1939), basakeri ugari gertatu ziren. Egia da, askotan, hobe dela ahaztea eta bere horretan gauzak uztea, baina egia izan daiteke baita, ahazte horrek, garrantzirik ez ematea esan dezakeela, eta hori ez da zuzena. Egun hauetan, hemen gure artean, Elizaren baitan gertatu zena gogoratu eta erreparatu nahi izan da nolabait. Agian askok, irakurri edo entzun eta ikusiko zenuten komunikabideetan, nola errepublikaren aldeko hamalau apaiz euskaldun, frankistek fusilatu zituzten, eta nola isilean gorde eta ezkatuak izan ziren, ez bai zen inondik iburazkoa "kruzada" bezala onartua izan zen gerra batean, gurutzearen defendatzaile ofizial hariak egin zutena egitea.

Apaiak horiek oso ezberdinak ziren jatorriz, izaeraz naiz lanez. Batzuk gazteak oso, Martin Lekuona bati-bat, gure on Manuel Lekuonaren anaia gazteena, eta besteak adinekoak. Batzuk langilegoari emanak zeuden ELAn, JOCen, Kooperatibetan... Besteak, euskal kulturari emanak erabat, Ariztimuño "Aitzol" bereziki. Ba ziren paroki bizitzan, herriko mugimenduetan sartuak, batez ere Arrasateko apaizak (hiru garbitu zituzten), baita komentuetako kaperauak ere. Zer zuten bat, zerk lotzen zituen, horrela akabatzeko? Ez zutela, gehiengoari jarraituz, politikoki "komeni" zena onartu. Horixe zen bekatua. Elizaren gehiengoari uko eginez, beren kontzientziaren arabera, eta herriaren zati handi bati jarraituz, uko egin zitela kolpeari, horixe.

Joan XIII.en aita santuak, duela urte batzuk, "Pacem in Terris" deituriko gutuna idatzi zuen, guzti honi eta beste gauza askori buelta eman nahirik, eta bertan, benetako bakearen baldintzak zeintzuk diren azpimarratzen zituen: egia, zuzentasuna, askatasuna eta maitasuna. Gaur ere ikasbide eta norabide denontzat, bakea ez bai da hitza ez eta ere edozelako ekintza.

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Maider**

Zorionak pitufi!!  
Marrubizko sei muxu handi, Ane eta gurasoen partetik.



**Enara**

Zorionak bihotza!!  
Marrubizko 4 muxu, merezi dituzu eta. Aita, ama eta Liberen partez.



**Eider**

Zorionak etxekoen partetik. Bestalde, norbait oraindik zure afariaren zain dago, Pirruki!!



**Maddi, Unax eta Malen**

Zorionak hirukote! Oso ondo pasa urtebetetze egunean. Marrubizko zazpi, hiru eta bi urte familia osoaren partetik.



**Unax eta Garazi**

Zorionak bikote! Bi muxu handi Ane Miren eta Liliren partez.



**Nora**

Handitzen ari zaigula etxeko txikia!! 8 muxu potolo aita, ama eta Aneren partetik.



**Alex**

Zorionak zure bigarren urtebetetzean. Aita, ama eta aiton-amonen partetik. Muxu handi bat!



**Jon**

Zorionak bi urte betetzean familia guztiaren partetik. Muxu handi bat!

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa . . . . .943 007960  
DYA . . . . .943 464622  
Gurutze Gorria . . . . .943 363953  
Udaltzainak . . . . .943 362442  
Ertzaintza . . . . .943 288888  
SOS Deiak . . . . .112

**Udala**

Erregistroa . . . . .943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia . . . . .943376182  
Kulturetxea . . . . .943376181  
Bakezko epaitegia . . .943371629  
Zerbitzu Sozialak . . .943376179  
Zentro Zibikoa . . . .943363958  
KIUB . . . . .943361605  
Udal euskaltegia . . .943361621  
Obrak eta zerbitzuak . . . . .943 376180

**Guardiak**

**Ostirala, 17**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549  
**Larunbata, 18**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549  
**Igandea, 19**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549  
**Astelehena, 20**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567  
**Asteartea, 21**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529  
**Asteazkena, 22**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549  
**Osteguna, 23**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Etxebizitza alokatzen da Lasarten, Sasoea auzoan. Hiru logela, sala eta eraikuntzak igogailua du. Harremanetarako telefono zenbakia, 661396299.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Orian, zentroan. Harremanetarako zenbakia, 666 607 447.

**Salerosketak**

• Bost laguntzako Daewoo Matiz autoa salgai. Estrenatzeko. Lehiaketa baten eskuratua. Garantia ofizialekin. Lehen bait lehen saldu nahi da. 943 36 54 76 659 02 19 45.

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aukia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean. Tel.: 687 965454.

• Salgai gas-frijigailu industrialia. Refugas markakoa; luzeran 63 zm. eta zabalean 40. Erabilgarriak: luzeran 43 erabilgarriak eta 28 zabalean. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Salgai Maria bainuko gas-aparua bere osagarriekin. Refugas markakoa; luzeran 56 zm. eta zabalean 32. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Michelin energy 256515H motako lau gurpil eta mercedes markako originalak diren 5 zuldun burdinezko lau gurpil-hagun saltzen ditut. Guztiaren salneurria 200 euro dira. Harremanetarako zenbakia, 647 254 082.

• Kotxe bat saltzen da, Renault Clio 1.6. Oso merke eta oso ondo zaindutakoa. Harremanetarako zenbakia, 680 989 335.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

**Lan-eskaintzak**

• Pertsona bat behar dut klase partikularrak emateko 8 urteko haurrari udan, uztailearen erdian eta abuztuan. Tel.: 615 793 964.

• Irakasle bat behar da lehen hezkuntzako haur bati laguntza eskolak emateko. Tel.: 667 808 011.

**Lan-eskaria**

• Estatu Batuetan 20 urtez bizi izan den irakasleak, ingelesko klaseak emango lituzke edozein adina eta maila. Tel.: 943 362605 Elena

Mutil bat eskaintzen da gizon edadetuak zaintzeko, autoen mekaniko bezala aritzeko, base-rietan edo /eta gabiketan lan egiteko. Tel.: 648 785 026.

Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna moduan edo orduka. Tel.: 943 368574.

Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna moduan edo orduka eta garbiketa lanetarako. Tel.: 608 098 941.

Emakume bat eskaintzen da etxeko lanetarako interna moduan edo orduka eta garbiketa lanetarako. Tel.: 630 438 571.

DBH edo LOGSEko ikasleentzako laguntza ematen dut. Baita gitarrazko klaseak ere. 653016344 Mikel.

**Bestelakoak**

• Altabozak erosiko nituzke. Tel.: 943 362998, Luis.

• Gitarra klaseak hartuko lituzte 12 urteko mutiko batek. Harremanetarako zenbakia, 615 793 964.

**Jaiotzak**  
Ane Casado Infante, Uztailearen 11n

**Heriotzak**  
Fermina Garmendia Obxandorena, Uztailearen 10ean, 72 urte zituela

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Stock eta Saldoen II. Azoka antolatu dute Udalak eta Aterpeak

■ Irailaren 5 eta 6an egingo da Michelingo Pilotalekuan

TXINTXARRI

laz egin zen Stock eta Saldoen I. Azokaren arrakasta ikusita, bigarren edizio bat antolatzea erabaki dute Lasarte-Oriako Udaleko Merkataritza sailak eta Aterpea elkarteak.

Irailaren 5 eta 6an, larunbata eta igandean antolatu da denboraldiz kanpoko arropa edo edozein modutako pagotxak erosteko aukera ematen duen egitasmoaren bigarren edizio hori.

## Pilotalekuan

Leku aldaketa egongo da. laz Michelingo teniseko pista burutu zen ekintza, baina lehenengo edizioko partehartzaileen iritzia kontuan hartu dute antolatzaileek eta kirol gune bereko pilotalekuan egitea erabaki dute.

Stock eta Saldoen II. Azokaren ordutegia larunbata eta igandean bera izango da, 10:00etatik 20:00etara.

Azokara hurbiltzen diren herritarrek erosketak egiteaz gain, musikaz ere gozatu ahalgo dute.

Eta, honetaz gain, edariak saltzeko dendatxo bat jartzeko asmoa dagoela ere aurreratu digute antolatzaileek.



Pagotxak eta produktuak merkeago erosteko aukera egongo da berriro ere Lasarte-Orian, Stock eta saldoen II. azokan.

## Parte hartzea

Lasarte-Oriako edozein estabiezimenduk hartu dezake parte azoka honetan. Gutxieneko partehartzaile kopurua, 15 edo 20 bat komertzio, biltzen ez bada, beste herriko dendeak aukera izango dute jakin arazi dute antolatzaileek.

Honetaz gain, partehartzaile bakoitzak bere produktuak salgai jartzeko erabili nahi dituen mahaiak, aukiak eta/edo erakustaltzariak eraman beharko dituel azzimarratu dute.

Izena emateko epea abuztuaren 23a arte dago irekia. Komertzio interesatuak, Ater-

pea elkartearekin jar daitezke harremanetan, 637 955 030 edo 687 84 56 23 telefonora deituz edo posta elektronikoko bat helbide honetara, itziarurzun@hotmail.com, bidaliz.

Honela, lerro hauen bitartez Lasarte-Oriako dendaia animatu nahiko litzuzke, azokan parte hartzera. •



Oriatar ugari bildu zen auzoko zaindari den Karmengo Amaren aldeko mezan.

## Karmengo Amaren eguna ospatu zuten oriatarrek

Atzo, uztailak 16, Karmengo Amaren eguna ospatu zen Oriako auzoan.

Solano eskolako trikitilariak kalejira alaiaren auzoko kaleak girotu zituzten goiz osoan.

Ospakizun nagusia, eguerdian, Karmengo Amaren

kaperan burutu zen meza izan zen.

On Ramon Uribetxeberria, Juan Luis Murua eta Xabier Andonegi apaizek ospatu zuten meza eta Pilar Catalina sopranoak, Amaia Dorronsoro organojolea lagun, girotu zuten. •

## Santa Ana eguneko ospakizunak prest

Uztailaren 26a, Santa Ana eguna, gertu dago eta urtero bezala, Ttakun kultur elkarteak egun horretarako ekintzak prestatzen dihardu.

Meza, luntxa, karrikan ikurrina jarri eta agurra dantzatzea eta, ohitura denez, Lasarte-Oriako eta inguruko gertaera garrantzitsuak errepasatzen dituen parodia.

Aurten berri nagusia, lekua aldaketa da. Okendo plazako lanak direla eta, parodia Isla plazan egingo da.

Urtero legez, Lasarte-Oriako herritar edo elkarte bat omenduko du parodiak, Beltzak Rugby taldea. Kirol taldea honek bere 25. urteurrena du aurten eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi burutu ditu. Gainera, rugby eskola iraunkorra ezartzeko asmoa ere badute.

## Aktore eta laguntzaileak

Azken aste hauetan gidoiari azken ikutuak eman ostean, asteazkenean hasi zituzten entseguak.

"Hala ere, paper guztiak ez daude banatuak," jakin arazi digute Ttakuneko parodiako arduradunek. Beraz, oraindik aukera dago parodian parte hartzeko, gainera paper guztiak ez omen dute testurik, "figuranteak" dira.

Parodiako arduradunek aipatu digutenez "aktore lanetan edo laguntzaile moduan parte hartu nahi duenak Ttakunetik pasa edo entseguetara ager dadila."

Entseguak eguneroko egingo dira, 18:30etik 20:30era, Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. Lotsa guztiak alde batera utzi eta anima zaitzete! •

BANDALISMOA

## Ekintza bandalikoek salaketa

Lasarte-Oriako Udalak lerro hauen bidez salatu nahi ditu Osasun zentro berriko eraikinean egon diren ekintza bandalikoak.

Bertan, ate metaliko bat, teilatuko tapa bat eta Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko kristalak puskatu dituzte.

Ekintza hauek baino egun batzuk lehenago, gainera, argiak puskatu zituzten Tajamar eta Atsobakarreko errotondetan eta kontainerrak erre zituzten Goegi urbanizazioa eta Azkorte bidean.

Kalte hauen guztien kostua 6.000 euro ingurukoa dela azpimarratu du Lasarte-Oriako Udalak.

Zerbitzu Publikoetako sailleko arduraduna den Martin Morenok azaldu duenez, "etengabeak dira ambulatorio berriko eraikinak jasaten dituen kalteak, eta baita udalerriko beste gune batzuetan gertatzen direnak, adibidez, Villa Mirentxun edo Zirkuitu ibilbidean."

Morenoren hitzetan, "ondo pasatzeko ez dago zertan altxor publikoa apurtu behar, herritar guztien artean ordaintzen duguna."

Bandalismo maila honen aurrean, horrelako ekintzak berriro ere ez suertatzeko neurriak hartuko dituztela adierazi du, zaintza gehituko dute eta hondaketak egin dituztenak gogor zigortuko dituzte. •

OKENDO

## Brigidatarren komentuko arkupea ikusgai

Datorren igandean, uztailak 19, Lasarte-Oriako Udalak gune txiki bat prestatuko du Okendo eta Brigidatarren komentu arteko arkuak ikusi ahal izateko.

Okendo plazako eta udallexe berriko lanak amaitzen direnean agerian geratuko da arkupea, baina hori baino lehen lasarteoriarrek beti ezkutatuta egon diren eta inoiz ikusi ez dituzten arkuak ikusteko aukera izatea nahi du Udalak.

Arkupea ikusi nahi duen orok, 10:00etatik 14:00etara aukera izango du bisita egiteko.

Gunerako sarrera Osasun zentro zaharraren ondoan dagoen ate handia izango da, Hipodromo etorbideko iturriaren ondoan dagoena. •

Jon Lasa Landaberriko musika irakaslea eta Amalur trikitixa eskolako arduraduna

# 'Ahotsa da musika tresnarik ederrena'

Landaberrin musika irakasle 32 urtean aritu eta gero, azaroan utziko du ikastola. ■ Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da horren oinarria. ■ Amalurreko ikasleek diskoak kaleratu dute.

Jon Lasa aurtin utziko du ikastolako lana. Erretiratzeke adinera iritsi da, baina ez du musikarik utziko. Amalurren segituko du eta urtean zehar herriari ikasleekin burutzen dituen lainbat emanaldian ikusiko du. Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da herri musika horren oinarria. Bestalde, dagoen musika tresnarik ederrena eta politena ahotsa dela dio. Eta denok dugula ahotsa. Dударik gabe kantatzea gustukoa du.

**Zein ikasketak egin zenuen?**  
Ni 11-12 urterekin jada Altsa-musika nintzen seminarioan, eta musika oso garrantzitsua zen ban, eta zuzentzeko musika. Pianoarekin eta amonobeekin hasi nintzen: Aita Donostiak, Olazarain, oso musikajole onak zuden eta orduan sortu zen nire zalekizun hori.

**Erretiratu egingo zara laster...**  
Azaroan 30ean erretiratuko naiz Landaberrin lanetik. Erretiratzearen kontu hori ez zait garrantzitsua; ean dezagun, nire molararen marka aldatu egin dezagun dudala; marka manisagoa jarriko dut.

**Ez duzu, beraz, musika utziko?**  
Ez, ez, Landaberriko festetan jarraituko dut parte hartzen, oso gustura joaten naiz eta, Sol-leoa ematen dugu, baina jolaserekin biltzen naiz. Horrela ikasi dut eta umek oso eraz aspertzen dira. Modu lasaigo eta aspertzen nagoan, edo jolas, inuditi eta marrazkien bidez, pakkana, inoaik ematen du.

**Posible al da hori?**  
Bai, bai. Beste eskoletan estutu oso ondo, oso talde ederra kalez lanetan.

**Festetan erraxagoa da gauzak kanpotik ekartzea; eskarzen dutena eman eta kitto. Baina festa herriak berak egiten duenean, orduan politagoa da.**



Urtean zehar lainbat aldtz jozten du musika lantzen Jon Lasa.

**Musika eta jolasa uzartu beharrezko al dira?**  
Bai, halabeharrez. Musika emateko modu bakarra da, bestela oso astuna bihurtzen da. Kontu handiarekin biltzen da. Sol-leoa ematen dugu, baina jolaserekin biltzen naiz. Horrela ikasi dut eta umek oso eraz aspertzen dira. Modu lasaigo eta aspertzen nagoan, edo jolas, inuditi eta marrazkien bidez, pakkana, inoaik ematen du.

**Zein maila du Lasarte-Oriak musika alditze?**  
Maratoia barometro oso interesgarria da herriaren zentzua dagoen ikusleko eta harrituta uzten nau zenbat balibehide dagoen ikusleak musika alditze zenbat lan egiten den, jendek eta bideko dago, posibilitate askorik. Gogo handia dago eta musika maila duen asko.

**Beste gauza bat da, denek nola miera eman. Askotan, festetan kanpotik ekartzen diren diskoak, azaroan utziko du ikastola. ■ Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da horren oinarria. ■ Amalurreko ikasleek diskoak kaleratu dute.**

**32 urte hauetan zenbat ikasle pasa dira zure eskutik?**  
Ere... Musikatik gela eta ikasle guztiak pasatzen dira. Nik uste dut milaka pasa direla nire eskutik, Lasarteko gazteen etimetik 70 bat.

**Ba al dira gaur egun musikariak?**  
Bai. Badaude musikatik bizi direnak. Nik base bat eman nien ikasle horiei eta musika atsegin hartzen ikasi zuten jolko eta jolas moduan erakutsi. Gero bidea zehin garbi zuten ikusita, bere pausak ematen dituzte eta beste toki batetara joan dira. Oso inportante da musika modu aldan gaitza gaur.

**Eskolaren garrantzia handia da, eskolatik hasi behar dira. Musika irakastean zuzen erakargarria izanarrek badituzte, hori ere euren bidea egingo dute, beste bide bat, baina besteok herria dinamizatu behar dugu. Txiki txikitik hasi behar da kantuan, 6-7 urterekin. Umek oso gustura abesten dituzte, bai esteroak baina baita era askotako kantuak ere... *Isi isilki dago, Xaladorren heriotza, Eskal Herriaren eskaraz, Hegoak ebaki banitzko edo Errebera...* Gozatuz abesten dute.**

**Nik eskolatan dizkit abestutako kantuak eta gero gurasoen kanpotik ekartzen ditut. Edo Maratoia barometro oso interesgarria da herriaren zentzua dagoen ikusleko eta harrituta uzten nau zenbat balibehide dagoen ikusleak musika alditze zenbat lan egiten den, jendek eta bideko dago, posibilitate askorik. Gogo handia dago eta musika maila duen asko.**

**Beste gauza bat da, denek nola miera eman. Askotan, festetan kanpotik ekartzen diren diskoak, azaroan utziko du ikastola. ■ Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da horren oinarria. ■ Amalurreko ikasleek diskoak kaleratu dute.**

**Zuek ere ibiltzen zarete herri, ezta?**  
Talde handian ikasitelen festetara joaten gara, Kilometroak, Nafarroa Oinez... Talde txiki bat badugu erromatara joateko eta bi orduko erromeria prestatu duena ere bai. Ilusio nuen eskola ikasleekin ateratzeko. Azken zazpi urtean guduarekin izan dituzten jaietan nukerazaleko proposatu izan genizkion, hauek zerrituta bat egin zuten, gipuzteko prest zuden galdetu eta batezkoa eman zuten. Azken urtean egin dugun lanaren bildumaxoa izango da.

**Zer bait argitaratzen duzuen lehenengo aldia al da?**  
Bai, grabatuzko asko daukagu, baina bipharri pieza dira edo erromeria txikiaren baten grabaketak. Dena den, pentsatzen dut aurrera begira ez dela azkeneko. Esperientzia polita izan da, umek oso ondo erantzungo ditute eta jarraitzeko asmoa daukagu.

**Zein maila du Lasarte-Oriak musika alditze?**  
Maratoia barometro oso interesgarria da herriaren zentzua dagoen ikusleko eta harrituta uzten nau zenbat balibehide dagoen ikusleak musika alditze zenbat lan egiten den, jendek eta bideko dago, posibilitate askorik. Gogo handia dago eta musika maila duen asko.

**Beste gauza bat da, denek nola miera eman. Askotan, festetan kanpotik ekartzen diren diskoak, azaroan utziko du ikastola. ■ Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da horren oinarria. ■ Amalurreko ikasleek diskoak kaleratu dute.**



Jon Lasa. Amalur Eskolako atean. Musika irakasten iriziz, ehoak garrantzi handia du eta kompen da umek eskola politatik kantuan hastea, musika oinarri bat izan dezaten.

**Musika irakasteko modu bakarra, jolasuz eta modu atseginarekin egitea da, bestela oso astuna bihurtzen da.**

**Zein musikak tresna guztiak erabiltzen dituzte?**  
Egia esan denetik dago, eta ez dago kanpoko ezer, denak bertakoak dira. Kanpokoak ez dituzte erabiltzen. Alde horretatik oso herri interesgarria da.

**Zein musikak tresna guztiak erabiltzen dituzte?**  
Egia esan denetik dago, eta ez dago kanpoko ezer, denak bertakoak dira. Kanpokoak ez dituzte erabiltzen. Alde horretatik oso herri interesgarria da.

**Lizarraga jaioterriko organista naiz. Herri txiki honetako festetarako eta, batez ere, hiletetarako deitzen didate. Ahalik eta alaienak egin nahi dituzte.**

**Eta musika tresna guztiak erabiltzen dituzte?**  
Egia esan denetik dago, eta ez dago kanpoko ezer, denak bertakoak dira. Kanpokoak ez dituzte erabiltzen. Alde horretatik oso herri interesgarria da.

**Zein musikak tresna guztiak erabiltzen dituzte?**  
Egia esan denetik dago, eta ez dago kanpoko ezer, denak bertakoak dira. Kanpokoak ez dituzte erabiltzen. Alde horretatik oso herri interesgarria da.

**Beste gauza bat da, denek nola miera eman. Askotan, festetan kanpotik ekartzen diren diskoak, azaroan utziko du ikastola. ■ Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta eskola da horren oinarria. ■ Amalurreko ikasleek diskoak kaleratu dute.**

**M. Berasategi Kafeak**

Besti dago aukerari  
haiz on bat hartzeko

**IRUPUOK**

- TE BIZKAIAS
- TE TXURRA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOAREKIN e.a...

**TEIA GABEAK**

- MELISA, TILA, KAWAMILA, MENTA, SAGARRA, ANISA, MAKILGOKO, ROOIBOS, e.a...
- KAFE ARABIKOA
- PARACATU (Bosch)
- TARRAZU (Costa Rica)
- BELTZA KLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA

**ADURIZ DE LASARTE S.A.**

- ZATIKAKETA ARETOKO
- URDAIGINZA LANTEGIA
- BILTEGI HOZKAILUDUNA

LOIDI BARREN KALEA 3 • LASARTE-ORIA • TEL.: 943 361278 • 943 361655 • 943 362451



Kiroletako agenda

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 19

94. Zaldi Lasterketa denboraldia

Donostiako Hipodromoan

2. jardunaldia - Foru Aldundia

17:30ean - 1. Lasterketa, *Merkabugari* saria, 1.300m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Arrieta (IRE)	9	57	M. Borrego	Y. Durepaire	C. Kif Kif
2	Eco Jar	12	57	B. Moreno	F. Rodriguez	Reco Pazooki
3	El Santo (IRE)	8	57	B. Fayos	J.C. Rosell	C. Chaberni
4	Kalimnia (FR)	2	57	W. Smit	R. Avial	C. Rober
5	Maimona (IRE)	5	57	F. Jiménez	T. Calleja	Celso Méndez
6	Walfgang	4	57	J. L. Borrego	M. Alonso	C. Mulu
7	Atenea	3	55,5	O. O. de Urbina	R. Martín S.	Y. Donatiana
8	Chiyada (IRE)	6	55,5	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Sofasf
9	Ralompago (GB)	10	55,5	J. L. Horcajada	R. López	C. Yadorichi
10	Boromir	7	55	G. Madero	M. Delcher S.	C. Miranda S. L.
11	Frisia	11	53,5	J. L. Martínez	A. Suñen	Y. Militar
12	Fussy	1	53,5	C. Gneai (B.B.)	A. Suñen	Y. Militar

18:05ean - 2. Lasterketa, *Faiso Garbikatok* saria, 2.200m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Beamar (FR)	7	58	J. L. Horcajada	A. Remolina	C. Remolina
2	Gran Aguila (IRE)	8	57	O. O. de Urbina	J. Suárez	Y. Igotomer
3	Ballinglora (FR)	4	56,5	M. Secci	M. Alonso	C. Pereira S. A. T.
4	Adeneve (FR)	1	56	M. Borrego	J.M. Borrego	C. San Marcial
5	El Bolao (GB)	9	56	F. Jiménez	E. Oligado	Celso Méndez
6	Esquimo Green (FR)	2	56	B. Fayos	J.C. Rosell	E. Bessis de Nieme
7	Jonahua (USA)	5	56	G. Madero	M. Delcher S.	C. Madroños
8	Rav Faviola (FR)	12	56	B. Moreno	M. Alonso	C. Asturias
9	Rolandino (FR)	3	56	J. L. Martínez	R. Martín S.	Y. Urdin - Oriva
10	Klara	10	55,5	J. Grosjean	M. Delcher S.	M. Delcher Sánchez
11	Kuttuna	15	55,5	J. L. Borrego	R. López	C. San Ignacio
12	Coagilo (IRE)	14	54,5	W. Smit	R. Avial	C. Rober
13	Lady Denver	6	54,5	C. Gneai	R. Martín S.	Y. Urdin - Oriva
14	Missin	13	54,5	M. Gómez	Ch. Delcher	C. Madroños
15	Ronda Dancer	11	54,5	S. Robert	A. Imaz Ceca	C. Eiva

18:40ean - 3. Lasterketa, *Albanileria vertical* saria, 2.200m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Artium (IRE)	2	59	O. O. de Urbina	M. Delcher	Felix Vela
2	Shumpokh (IRE)	9	59	F. Jiménez	T. Calleja	CDH A. Dea Tumbasa
3	Tincin (FR)	1	59	J. L. Martínez	J.A. Urbano	Juía Albero Urbano
4	Arabeg (GER)	6	58	M. Borrego	E. Oligado	C. Nanina
5	Pinovar (IRE)	7	58	B. Fayos	F. Galdeano R.	C. Talosara
6	Blue Ridge View (FR)	3	57,5	J. Grosjean	Ch. Delcher	C. Edu
7	Guarmiza (GB)	4	56	W. Smit	R. Avial	C. Rober
8	Speed Emperor (ARG)	8	56	J. L. Borrego	G. Arizkorreta	C. Vilas
9	Tsarabi (IRE)	5	56	F. Sponu	A. Imaz Ceca	C. Martul

19:15ean - 4. Lasterketa, *Induscreen* saria, 1.600m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Sintoni Doble (IRE)	4	62	M. Secci	G. Arizkorreta	C. Pastor Sorpresa
2	Atlantico	5	61	M. Borrego	Y. Durepaire	C. Kif Kif
3	Godir (FR)	6	59	B. Fayos	R. Martín S.	C. Anubis
4	Rulloba (IRE)	2	58	S. Robert	A. Imaz Ceca	C. Aiko
5	Fanga (FR)	1	57	W. Smit	R. Avial	C. Rober
6	Mister Orago (IRE)	6	56	B. Moreno	F. Rodriguez	C. Los Toneles
7	Zarro (IRE)	3	55	J. Grosjean	Y. Durepaire	Peña Negra
8	Arrebato (IRE)	7	55	J. L. Horcajada	M.J. Pérez	C. Donaflo
9	Penchaje (FR)	9	53	M. Gómez	T. Calleja	Daniel Roset

19:50ean - 5. Lasterketa, *Foru Aldundia* saria, 2.200m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Kiffer	8	59	B. Fayos	F. Galdeano R.	C. Inguis
2	Baroud de Coeur (FR)	3	58	M. Borrego	J.M. Borrego	C. San Marcial
3	Eraquery (FR)	9	58	W. Smit	R. Avial	C. Rober
4	Kuwango	1	58	J. Grosjean	M. Delcher S.	C. Quirto Real
5	Tropical Rain (FR)	4	58	F. Sponu	A. Imaz Ceca	C. Martul
6	Ambassador	7	57	J. L. Horcajada	I. Gómez	C. La Espiga
7	Danis Dream	5	57	C. Gneai	J. Suárez	C. Cruz María
8	Sarasate (GB)	6	57	J. L. Martínez	M. Delcher S.	C. Quirto Real
9	Le Feu Du Ciel (FR)	2	56	J. L. Borrego	G. Arizkorreta	C. Savago

20:25ean - 6. Lasterketa, *TeleDonosti* saria, 1.600m.

	Zaldia	Kajoiak	Pisua	Jockey	Prestatzailea	Jabea
1	Glamoureuse (FR)	9	62	W. Smit	R. Avial	C. Rober
2	Emir	2	60	M. Borrego	I. Gómez	C. Bobby
3	Huchita	4	60	J. L. Borrego	G. Arizkorreta	C. Savago
4	We Can (USA)	5	60	O. O. de Urbina	E. León	G. Bessis G. Carreño
5	Sabinatzena	6	59	B. Fayos	F. Rodriguez	Y. Tierra Ibero
6	Sweet Saratoga (IRE)	3	58	J. Grosjean	F. Rodriguez	Reco Pazooki
7	Melantia	7	55	J. Vicuña	E. Puente	C. El Soble
8	Xamuray	1	52	Sr. Gómez A.	I. Gómez	C. Bobby
9	Reddy on Tango	8	50	J. B. Vigie	E. Puente	C. Los Mieres



Nahiz eta Begiristain anaiak nagusi izan, Etxezarreta-Bardaji bikoteak emaitzari buelta eman zion azken puntuetan.

# Etxezarreta-Bardaji eta Arluziaga-Bardaji, Santa Ana pala txapelketako finalean

Santa Ana pala txapelketako finaleko bikoteak erabaki ziren aste honetan, final aurreko interesgarrietan.

Partida horietan Iñigo Arluziaga-Imanol Bardaji eta Xabier Etxezarreta-Mikel Bardaji bikoteek eskuratu zuten finalerako txartela.

## Partidak

Euria izan zen protagonista berriro ere astelehenean. Atertzeko itxuririk ez zuenez, lehenengo final aurrekoa, Etxebeste-Lizaso eta Arluziaga-Bardaji, asteazkenean jokatzera erabaki zen.

Eta honetara, asteazkenean, Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji nagusi izan ziren partida hasieratik.

8 puntuko errenta izatea lortu zuten, azken puntuak arte. Orduan, Etxebeste-Lizaso bikoteak erantzun eta bi tantara, 29-31, egotea lortu zuen.

Baina ezin izan zioten markagailuari buelta eman eta Arluziaga eta Bardaji lortu zuten garaipena.

Astearteko partidari, berriz, Begiristain anaiak Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurka 33 eta 35 galdu zuten.

Partida interesgarria izan zen benetan. Begiristain anaiak nagusi izan ziren partida hasieratik eta Jon atzelariaren lana nabarmentzeko izan zen.

Jon eta Mikel Begiristain aurretik egon ziren partida

osoan eta 10 tantoko errenta lortu zuten. Etxezarreta-Bardaji bikoteak akats ugari egin zituen eta, gainera, partida erdian, Xabier Etxezarreta atzelariak belanean min egin zuen.

Tamalez, partidako azken tantoetan Etxezarreta-Bardaji bikotearen esperientziak zer esana izan zuen. Jon Begiristain atzelaria nekatu eta buelta eman zioten markagailuari.

## Ikusleak

Nahiz eta txapelketa Michelin fabrika ondoko pilotalekuan jokatzeko ari den, herri gunetik urrun, azken fase honetako partidetan, herritar ugari bildu da jokalariek animatu eta partidetak gozatzen. •

# Leticia Tiatik bi domina ekarri ditu Espainiako atletismo txapelketatik

Zilarrezkoa eta brontzeko domina, horiek dira Leticia Tiatik Kraft-Atletico San Sebastian taldeko lasarteoriatarrek asteberriko, uztailak 11 eta 12, Calviá Mallorcako herrixkan burutu diren jubenil mailako Espainiako txapelketan eskuraturako sariak.

Urte batzuen ostean, atleta lasarteoriatarra berriro ere ikusi dugu Espainiako txapelketako podiumean eta birritan gainera, disko eta pisu jaurtiketa probetan.

Pisu jaurtiketa proban, 4 kiloko bola 11,64 metroetara bidali zuen, irabazletik 43 zentrimetroetara eta disko jaurtiketan, berriz, hirugarren izan zen 37,54 metroko marka eginez. •



Egunero

**Erakusketa**

RAFA ZUBIRIAREN argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 17

**Kontzertua**

MIREN, pop euskaraz. Beste hainbat musikariek in batera emanaldia eskainiko du. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



**UdaFunk!!! Hernaniko Chillida Lekun**

*Makulu Ken* taldeak emanaldia eskainiko du Chillida Lekun larunbatean. Xpression!!! eta Chillida Leku museoak funk estiloko kontzertuak antolatu dituzte Hernaniko museoan eta horietako bat *Makulu Ken* herriko taldeak eskainiko du. Batez ere influentzia beltzak dauzka taldeak, reggae, funk eta afrobeat doinuak landuz batik bat.

BIHAR, LARUNBATA 18  
CHILLIDA LEKUN, 18:00ETAN  
SARRERA, 3 EURO.

Igandea, 19

**Azoka**

SANTA ANA KO XXVI. ARTISAU AZOKA ospatuko da. Bertan artisautzako postuez gain, jakian eta tailerrak egiteko postuak egongo dira. Bertso-lariak, trikitalariak, Juan Mari Arzak sukaldariari omenaldia... Brigitarren parkean eta

Dorre Parkean, goizean eta arratsaldean.



Igandea, 26

**Antzerkia**

SANTA ANA EGUNEKO PARODIA antzertuko da. Isla Plazan gaueko 22:30ean. Lehenbizi desfilea egingo da herriko kaleetan zehar iluntzeko 21:30ean. Desfilea Andatza plazan hasiko da eta Zumaburun amaitu.

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILEAN

Asteleheenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan itxita

ABUZTUAN

Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.



**Oharrak**

**Urrezko ezteiak**

Larunbatean 12:00etan Joxe Mari Zabala eta Juani Aldaz Urrezko ezteie ospakizuna egingo da Oriako Karmengo kaperan. Zorionak eta ondo pasa.

**Igerileku txikia itxita**

Haurtxoentzat antolatutako diren Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, uztailean zehar asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

**Sorgin Jaiei zozketa**

Sorgin Jaiek zozketatzen zuten bi pertsonentzako afaria 428 zenbakari egokitu zaio. Saria eskuratzeko jarri zaitzete harremanetan -jaietako batzordearekin sorginjaiak@gmail.com helbide elektronikoan.

**Santa Ana parodia**

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan edo/eta jantziekin lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezu bat helbide honetara: [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com).

**Lourdes eta Miarrizera txangoa**

Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuen elkarteak txangoa antolatu du, Lourdes eta Miarrizera. Txangoa uztailearen 22an da. Informazio gehiago eskuragarri dago, Biyak Bat egoitzeko bulegoan 10:30etatik 12:30etara edo 943 363 964 telefono zenbakian.

**Udako ordutegia**

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako ordute-

gia dute jadanik. Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia; igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta gauean 21:30ean, larunbatetan goizez bakarrik egongo da irekia 9:00etatik 13:00etara. Bulegoari dagokionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00-12:00 eta arratsaldean 17:00-19:00 eta abuztuan 10:00-12:30. Kirol gunearen ordutegia, bi hilabeteetan, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
[txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com)  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)  
[www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info)

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz [txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com) helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Añorgako jaiak**

17, ostirala

**10:00etan** umeentzako jokoak.  
**17:00etan**, Mozorro festarako prestaketa.  
**19:00etan**, EGAN taldearen emanaldia.  
**20:00etan**, haurrentzako *Orikiz* mozorro festa.  
**21:00etan**, *Orikiz* mozorro festa, **Jamaika**.  
**23:00etan**, dantzaldia EGAN taldearekin.  
**23:00etan**, kontzertua gazte lokalean, *Skakeitan*, *Fiachra*, *NPJ*.  
**01:00etan**, zezen suzkoa  
**01:30ean**, karaokea gazte lokalean.

18, larunbata

**09:00etan**, diana  
**11:30ean**, tiro txapelketa karabinaz.  
**11:30ean**, artisau postuen erakusketa.  
**12:30ean**, bakailu prestaketa eta sagardo dastatzea.  
**17:00etan**, xake lehiaketa.  
**17:00etan**, artisau postuen erakusketa.  
**17:30ean**, haurren danborrada.  
**18:00etan**, futbito txapelketaren finala.  
**20:00etan**, danborrada nagusia.  
**21:00etan**, afari herrikoa.  
**00:15ean**, zezen suzkoa.  
**00:30ean**, danborrada nagusiaren emanaldia.  
**01:00etan**, *Nahixan* taldearen emanaldia.  
**03:00etan**, *Gozategi* taldearen emanaldia.

19, igandea

**10:00etan**, Añorgako Erraldoi eta Buruhandien 3. topaketa.  
**10:00etan**, bolo jaurtiketa.  
**11:00etan**, xake lehiaketa.  
**12:00etan**, II. patata tortilla lehiaketa.  
**14:00etan**, Elkartearen arteko bazkaria Jolas Etxean.  
**16:00etan**, Jolas Etxea pilota txapelketaren finalak.  
**21:00etan**, bertso afaria.  
**01:00etan**, euskal musika kanta saioa Jolas Etxean.

20, astelehena

**10:00etan**, umeentzako tailerrak Rezola Museoan  
**14:00etan**, koadrilen arteko bazkaria.  
**16:00etan**, mus txapelketa azkarra.  
**18:00etan**, Pilota goxoko txapelketaren finala.  
**19:30ean**, Txortains taldearen emanaldia  
**21:30ean**, koadrilen afalostean, *Unsaín* anaiak.  
**00:00etan**, festen amaiera.



# Santa Ana Eskulanen XXVI. Azoka Erribera kalean egingo da aurten

Asteroko azoka egiten den lekuan egingo da 2-3 urtean, Okendoko plaza berria egin bitartean. Euskal Herriko toki askotako artisauek bere lana erakutsiko dute igandean, goiz eta arratsaldean.

Santa Ana Eskulangintza Azoka 25 urtean Okendoko frontoian egin eta gero, aurten halabeharrez lekuz aldatuko da. XXVI. Azoka, Erribera kalean, hipodromoko zubiaren ondoan egingo da igandean 19 goiz eta arratsaldean, hain zuzen ere asteazkeneko azoka egiten den tokian. Batetik, denetarik salduko dute aurten postua jarriko dute 18 artisauek, bestalde, janari eta edari postu ugari izango dira, eta gainera, bi artisauek euren lanak azokan bertan egingo dituzte. Aurten Juan Mari Arzak sukaldariari oparitutako diote herriko artisauek egindako laban berezia.

Jon ALTUNA

Igandean, hilak 19, goizeko 10etan irekiko ditu ateak XXVI. Santa Ana Eskulangintza Azokak eta iluntzeko 8ak arte izango da zabalik.

Aurten Okendon ezin eta Dorre Parkean, Brijidatarren Enparantzaren ondoan, jarriko dute postua 18 artisauek: Kandelak, bitxiak, otarrak, margolanak, larrua, zurezko jostailuak, egurrezko koilareak, aiztoak, liburuak, pilotak, ... denetarik egingo da salgai.

Guztien artean nabarmendu daiteke, aurten seda margotuak jarriko dituela ikusgai, Marivi Perez madrildarrak. Goizean 10etatik 14etara eta arratsaldean 17etatik 20etara egingo da zabalik azoka.

Gainera beste 30 postu izango dira jateko produktuekin, besteak beste, gazta, taloak, erroskilak, euskal pastela, barazkiak, zerrikia, sendaberrak eta kontserbak erosi ala dastatu ahal izango dira Azokan. Berrikuntza moduan, saltzaile batzuek jatekoa "hutsen" ontziratzeko aukera emango dute.

Bestalde, eskulangintza azokan urtero izaten dira lana bertan egiten duten artisauek. Aurten bi izango dira, esperientzia handia daukatena gainera, aurreko urteetan ere Lasarte-Oriana izan dira eta: Matxinbentako Iñaki Agirrezabala gaztainondoarekin otar edo saski txikiak egiten arituko da eta Vianako Blanca Jubete, aldiz, jaboia egiten.

Bestalde, girorik ez da faltako egun osoan zehar: Patxi Etxeberria eta Txomin Garmendia bertsolariak eta Amalur eskolako trikitilariak arituko dira goizean Eskulangintza Azoka girotzen.

Antolatzaileek erronka moduan hartu dute aurtengo azoka, kokapen berria dute bizpahiru urterako, Okendoko plaza berria egin bitartean, eta ez dakite ondo nola aterako den aurtengo azoka, baina itxaropentsu dira. Euren ustez, arbolak daude kokaleku berrian eta beraz, eguraldi eguzkitsua egiten badu ere, itzala izango dute hurbiltzen direnek eta bestalde, umeen parkea ere ondoan da.

Bestalde, Antton Salsamendi, antolatzaile taldekoak nabarmendu duenez, arlo guztietara zabaltzen ari den krisia, kulturagintzara ere iritsi da: aurten Udalak aurrekontua ehuneko 30ean txikituko du. Hala ere, artisauek sorta bikaina ekarri ahal izan dute eta horren ondorio da herriko artisauek kopurua ugartzea ere.

## Herriko artisauek ugari

Aurtengo Azokaren ezaugarrietako bat da herriko artisauek asko izango direla. Aurreko urteetan baino gehiago dira herrikoak, aurten zazpi postu: bitxigintzan aritzen diren Koro Ortega eta Arantxa Martín, larrua lantzen duen Serbando Iglesias, bitxigintzan ari den Ainhoa Elizegi eta material ezberdinekin eskuz aiztoak egiten dituzten Josemari Berasarte eta César Bozal.

Gainera postua jarriko dute Mertxe Galdos eta erretiratu den elkartearen eskulanen taldeko lagunek, Gumer Perez eta herriko ehorziri-taldekoek eta azkenik Ekain



Euskal Herriko hainbat tokitako artisauek herrian izango dira igandean goiz eta arratsaldean. Herrikoak ere bai.



Iaz, Martin Berasategik jaso zuen sukaldarian erabiltzeko laban dotorea.

Liburudendako Iñaki Chourraut-ek aurten ere liburuak kalera aterako ditu. Gainera antolatzaileek adierazi digutenez, hurrengo urteetan herri-

ko eskulangile gehiago izango dira. Aurten, arrazoi ezberdinegatik, batzuk etortzerik izan ez badute ere, hurrengo urteetan Lasarte-Oriako esku-

langintza azokan izango dira: esaterako kristala lantzen duen Andoni Iparragirre, egurra lantzen duen Gotzon Huegun, eta bitxigintzan aritzen diren neska batzuek.

## Omenaldia

Josemari Berasarte eta César Bozal lasarte oriatarrek iaz bezala laban berezi bat egin dute sukaldari ezagun baten zatitza. Iaz, bereziki berarentzat egindako laban hori, Martin Berasategi sukaldariari eman zioten, eta aurten Juan Mari Arzak-ek jasoko du.

Ideia iaz izan zuten artisauek eurek, urtero sukaldari bati sukaldarian erabiltzeko moduko laban zorrotz eta ikusgarria oparitzeko. Janaria txikitzeko moduko laban handia merkatuan dagoen altzarurik onenarekin egin dute, eta heldulekua zein gordetzeko narrazko zorroa ere oso landuak daude.

Eguerdiko 12etan harrera egingo zaie Arzak eta Berasategiri, eta azoka bisitatuko dute. Hamabiak eta laurdenetan Etxeberria eta Garmendia bertsolariak saio bat egingo dute eta 12:30etan emango zaio berretzat bereziki egindako labana Juan Mari Arzak-i. Honen alaba, Elena Arzak ere gonbidatuta dago igandean Lasarte-Oriara etortzeko. •

“ Juan Mari Arzak sukaldariak jasoko du aurten Josemari Berasarte eta Cesar Bozal herriko artisauek bereziki berarentzat egindako laban hori eta bere zorroa.